



## Gotzone Sagardui, sailburu agurgarria

Aurtengo urtarrilaren 9ko datarekin helarazitako gutunean adierazten nizun bezala, Errenterian oso kezkatuta gaude Iztietako anbulatorioan Lehen Arretak nabarmen egin duelako okerrera, baita Etengabeko Arreta Gune gisa anbulategia eskuadean eskaintzen ari den arretak ere.

Kezka hori oso zabalduta dago herritarren artean eta ondorioz, herritar ugari ari da parte hartzen egoera salatzeko antolatzen ari diren ekimenetan. Ekimen horien artean dago pasa den urtarrilaren 30eko udalbatzan auzo elkarteeek (Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinoak, Igantzi, Zamalbide, Alaberga, Oiarso Erdigunea, Iztietza, Gaztañoa, Gabierrota eta Agustinak), mugimendu feministarekin, Bilgune Feministarekin, eta Duintasuna pentsiodunen elkartarekin batera aurkeztutako mozioa.

Mozioak honako eskaerak jasotzen zituen:

1.- Iztietako anbulatorioan gertatzen ari den egoera larria dela eta, Errenteriako Udalak adierazi eta bere egiten du Iztietako anbulatorioko lehen mailako arretan eta EAGn (urgentziazkao Etengabeko Arreta Zerbitzua) gertatzen ari denari buruzko kezka.

2.- Errenteriako Udalak, osasun sistema publikoaren defentsan, gai honetan implikatutako gizarte eragileekin elkarlanean jarduteko eta bidelagun izateko borondatea eta konpromisoa adierazten du.

3.- Errenteriako Udalak babes eta elkartasuna adierazten die hain egoera zailean, eta batzuetan modu altruistan, gure herrikideei arreta emateko konpromiso eta profesionaltasun erakustaldia egiten ari diren osasun arloko langile guztiei,

4.- Errenteriako Udalak dagokien pertsonei, erakundeei eta sailei eskatzen die berehala har ditzatela arretarik eza hori konpontzeko behar diren neurriak, Iztietako anbulatorioan kalitatezko zerbitzua bermatzeko.

5.- Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen du

## Estimada Consejera, Gotzone Sagardui

Tal y como le trasladaba en la carta enviada con fecha del 9 de enero, en Errenteria vivimos con mucha preocupación el importante empeoramiento de la Atención Primaria en el ambulatorio de Iztietza, así como la atención que está prestando a la comarca como Centro de Atención Continuada.

Fruto de esta preocupación, muchos y muchas ciudadanas están participando en las diversas iniciativas que se están organizando para denunciar tal situación. Entre dichas iniciativas está la moción que presentaron diversas asociaciones vecinales (Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinoak, Igantzi, Zamalbide, Alaberga, Oiarso Erdigunea, Iztietza, Gaztañoa, Gabierrota eta Agustinak), junto con el movimiento feminista, Bilgune Feminista, y Duintasuna, movimiento de pensionistas, en el pleno del pasado 30 de enero.

La moción recogía las siguientes demandas:

1.- Ante la grave situación que se está dando en el ambulatorio de Iztietza, el Ayuntamiento de Errenteria manifiesta y hace suya esa preocupación respecto a lo que está ocurriendo en la atención primaria y en el PAC, Servicio de Urgencias en el ambulatorio de Iztietza.

2.- El Ayuntamiento de Errenteria, en la defensa del sistema sanitario público, muestra su voluntad y compromiso para colaborar y ser compañeros/as de viaje de los agentes sociales implicados con esta cuestión.

3.- El Ayuntamiento de Errenteria muestra su apoyo y solidaridad a todo el personal sanitario que en una situación tan adversa, y en ocasiones altruista, están dando una lección de compromiso y profesionalidad en la atención a nuestras vecinas y vecinos.

4.- El Ayuntamiento de Errenteria insta a las personas, instituciones, departamentos correspondientes a adoptar de modo inmediato las medidas oportunas que reviertan esta situación de desatención para que se garantice un servicio de calidad en el ambulatorio de Iztietza.

5.- El Ayuntamiento de Errenteria se compromete a realizar las gestiones oportunas que puedan

arazo hau konpontzen lagun dezaketen kudeaketak egiteko, bai eta mozio honetan hartutako erabakiak Eusko Jaurlaritzari eta Osasun sailburuari bidaltzeko ere.

Mozioa onartua izan zen, 18 aldeko bozka (PP, Elkarrekin-Podemos, PSE eta EH Bilduren bozkekin) eta 3 abstentziorekin (EAJ).

Gobernu taldeaz harago, udalatzaren gehiengoak herritarren kezkarekin bat egiten duela agerian geratu denez, urtarrilaren 9an egin bezala, eta mozioan jasotako Erreenteriako udalatzaren mandatuari erantzunez, berriz ere eskatzen dizut presazko bilera bat.

Nire eskaera aintzat hartuko duzulakoan, jaso ezazu agur bat,

contribuir en la solución de este problema, así como al envío de los acuerdos adoptados en esta moción tanto al Gobierno Vasco, como a la Consejera de Sanidad.

Esta moción se aprobó con 18 votos a favor (PP, Elkarrekin-Podemos, PSE y EH Bildu) y 3 abstenciones (PNV).

Puesto que queda manifestado que la corporación, más allá del equipo de gobierno, comparte ampliamente la preocupación de la ciudadanía, y cumpliendo el mandato del pleno de Erreenteria expresado a través de la moción, reitero la petición de una reunión urgente.

Esperando que tenga en cuenta mi petición, reciba un cordial saludo,

Erreenterian, 2024ko otsailaren 16an

Aizpea Otaegi Mitxelena

Erreenteriako Alkatea

